

KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN 2016KO ABENDUAREN 5EKO BILKURA

Herriko Kontseilua herriko etxean bildu zen, 2016ko abenduaren 5ean, 20:00etan, Vincent BRU buru.

Hor zirenak: Vincent Bru, Auzapez jauna; Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea eta Henri Saint Jean jauna, axuantak; Anne-Marie Pontacq anderea, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Jean-Jacques Lassus jauna, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othaceguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, zinegotziak.

Ezin etorriak: Camille Jenvrin jauna, zinegotzia.

Ahalordeak: Camille Jenvrin jaunak Bernadette Jougleux andereari.

1 – Bilkurako idazkariaren izendatzea.

Kideek, **aho batez**, Argitxu Hirigoyen anderea izendatu dute bilkurako idazkari.

2 – Aitzineko bilkuraren bildumaren onartzea.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei galdegin die 2016ko urriaren 3ko bilkuraren bildumari buruz oharrik baduten.

Oharrik izan ez denez, gehiengoak aitzineko bilkuraren bilduma onartu du. Lassus jauna aitzineko bilkuran ez zenez hor, abstenitu da.

3 – Partaidetza funtsa.

Auzapez jaunak jakinarazi du partaidetza funtsaren prozeduran, lehenik, Herriko Kontseiluaren proposamen bat behar dela, ondotik Elkargo Kontseiluaren bozka, eta azkenik herriaren baieztapena. Herriko Kontseiluak joan den urriaren 3an deliberratu zuen partaidetza funtsa galdearen zenbatekoaren aldatzeko, Kanboko herriari esleitu zenbatekoaren atxikitzeko xedearekin. Alabaina, zenbateko horretan, aldaketa batzuk galdegin ditugu, Estatuak eman laguntza osagarriak kontuan hartzeko, Tokiko Inbertsio Publikoaren Sostengatzeko Funtsa hain zuzen, diru-laguntzen tasak aldatu baititu. Beraz, herriak Herri Elkargolari proposatu dio laguntza egungo dossierren artean berriz banatzea, eta azken horrek proposamena onartu du, joan den azaroaren 9ko Elkargo Kontseiluan. Beraz, Herri Elkargoren bozka baieztatu behar da.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Gehingoak onartu du. Hauek abstenitu dira: Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea eta Pantxo Michelena jauna.

4 – Informatikako mantentze-lanak: enpresen izendatzea.

Bardin jaunak oroitarazi du herriak, 2014ko urtarrilaren 27an, IN SITU SUD-OUEST enpresarekin sinatu merkatu baten alde deliberatu zuela, enpresako informatika gailuen prebentziozko mantentze-lanendako. Kontratua 2016ko abenduaren 31n bururatuko denez, herriak zerbitzu-merkatu bat abiarazi du, prozedura egokituaren bidez, informatikako mantentze-lanendako kontratu berri baten adosteko.

Kontsultaren xedea zerbitzuak emateko baldintzen zehaztea da; hots:

- Ekipamenduak baliatzeko gisan mantentzea,
- Txosten iraunkor baten sortzea, dokumentuak idatziz,
- Bisita bakoitzaren ondotik bilduma baten idaztea,
- Helpdesk prozedura baten ematea, arazoen jakinarazteko eta horien segimendua egiteko,
- Langile bakar bat eskura ematea.

Zerbitzuetarako kontratua 2017ko urtarrilaren 1ean hasiko da, hiru urterako.

Eskaintzak igortzeko epea 2016ko azaroaren 14a arte zen; herriak lau gutun-azal eskuratu zituen. Gutun-azalak prozedura egokituaren duten merkatuen batzordearen bilkuran zabaldu ziren, azaroaren 15ean.

Prozedura egokituak dituzten merkatuen batzordea 2016ko azaroaren 21ean berriz bildu zen, eta eskaintzen azterketa txostenaren berri ukan eta, merkatua IN SITU SUD-OUEST enpresari esleitzea erabaki zuen, eskaintza merkeena egin baitzuen, kontsultaren araudiko irizpideei jarraiki. Bardin jaunak zehaztu du enpresa hori merkeena dela tasa guzietan, herriarekin hiru urtez lan egina duela, eta langilea Kanbon berean izanik, arazo bat gertatzen delarik laster jiten ahal dela. Herria bere zerbitzuez kontent da.

Herriko Kontseiluari proposatu zaio IN SITU SUD-OUEST enpresari esleitzea informatikako gailuen prebentziozko eta konpontzeko mantentze-lanen merkatua, eta Auzapez jaunari enpresa horrekin kontratua sinatzeko baimena ematea.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

5 – Herriko langileen estatutu-asurantzak: merkatuaren sinatzea.

Sain Jean jaunak oroitarazi du 2011ko azaroaren 11n Herriko Kontseiluak deliberatu zuela SMACLeKin asurantzak merkatu baten sinatzea, herria langileen estatutu-babes sozialari lotu diru arriskueta babeteko, 2012ko urtarrilaren 1etik goiti, hiru urterendako; hau da, 2014ko abenduaren 31 arte.

“Estatutu-asurantzak” kontratu hori adostu zen, CNRACLEko kide diren langile titular eta ikastunen estatutua arautzen duten testuei jarraiki, eritasun arruntendako gerizarik gabe, egun finko frankiziarik gabe; kontratu hori kapitalizazioz kudeatzen da, aurrekariak berriz hartuz, tasa orokor hauekin: %2,63, irizpide hauen arabera banatuta:

- Amatasun, aitasun geldialdiak: 0,20 %
- Lan-istripuak: 0,70 %
- Eritasun luzea, iraupen luzeko eritasuna: 1,14 %
- Heriotza: 0,59 %

Kontratuak bi luzapen izan ditu, 2015 eta 2016 urteendako, Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroak 2016an abiatu kontsultan parte hartzeko parada baitzen herriarentzat, estatutu-arrisku horien bermatzeko talde-kontratu baten baitan. 2016ko urriaren 13ko gutunean, Kudeaketa Zentroak herriari jakinarazi zion merkatua CNP asuratzailari eta SOFAXIS artekariari esleitu zela; proposatu tasa %4,22koa da, herriak galdegin bermeei jarraiki.

SMACLEkin izenpetu kontratua 2016ko abenduaren 31n bururatuko denez, herriak, bere konturako, zerbitzuak emateko merkatu bat abiarazi zuen, 2016ko urriaren 10ean, kontratu berri baten sinatzeko egokitu prozeduraren bidez, berme-oinarri berekin, hautuzko eta aldaera hauek barneratuz:

- Balizko zerbitzu gehigarria: eritasun arrunta, frankiziarik gabe,
- 2. aldaera: eritasun arrunta, 15 egun finkoko frankiziarekin,
- 3. aldaera: eritasun arrunta, 30 egun finkoko frankiziarekin.

Eskaintzak igortzeko epea 2016ko azaroaren 14a arte zen; herriak bost gutun-azal eskuratu zituen. Gutun-azalak prozedura egokituak duten merkatuen batzordearen bilkuran zabaldu ziren, 2016ko azaroaren 15ean.

Prozedura egokituak dituzten merkatuen batzordea 2016ko azaroaren 21ean berriz bildu zen, eta eskaintzen azterketa txostenaren berri ukan eta, merkatua SMACL Assurances/ETHIAS enpresari esleitzea erabaki zuen, eskaintza merkeena egin baitzuen, kontsultaren araudiko irizpideei jarraiki.

Herriko Kontseiluari galdegiten zaio:

- Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroarekin hasi desmartzaren ez segitzea,
- SMACL ASSURANCES asurantzak-eraketa eta ETHIAS asurantzak-eraketa asoziatua izendatzea
- Auzapez jaunari SMACL/ETHIASekin merkatua sinatzeko baimena ematea, oinarri hauekin:
 - o *Kontratuaren iraupena*: 3 urte, 2017ko urtarrilaren 1etik goiti, tasa-bermearekin,
 - o *Kontratuaren erregimena*: kapitalizazioz, aurrekariak berriz hartuz,
 - o *Tasa aplikagarria*: Oinarrizko kontratua, eritasun arruntendako gerizarik gabe, %4,16ko tasarekin.

Michelena jaunak galdegin du prozedura egokituak dituzten merkatuen batzordeak zergatik ez duen %3,03ko tasa proposatzen zuen asurantzak-eraketa hautatu.

Saint Jean jaunak erantzun dio enpresa horren eskaintza ez zettorrela arras bat baldintzen bildumarekin, eta hautuzkoak gehigarriarekin zirela. Asurantzak horrekin, kontratua urte baterako sinatzen zen, eta urte guziz berritzen, jakin gabe berritzean zein tasa izanen zen.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

6 – Ibilgailu elektriko eta hibridoen kargatzeko zutabeen ezartzea.

Goytino jaunak zehaztu du proiektu hori karga elektrikorako zutabeak lurralde osoan ezartzeko planaren barne dela. Departamenduan, SDEPAk dio ADEMEren Interes Adierazpen Deialdiari ihardetsi. Pirinio Atlantikoetan, 127 zutabe ezarriko dira 2017an. Ibilgailu elektrikoarekin ibili eta guti gorabehera 30 kilometro guziz kargatu ahal izateko gisan kokatuko dira zutabe horiek.

Herriaren neurria dela eta, SDEPAk proposatzen du bi zutabe elektrikoren ezartzea, elkarren ondoan, berritua izanen den Sorhainde plazan.

Zutabe horien ezartzeko finantzamenduari dagokionez, ADEMEk %50 hartzen du beregain, Departamenduak %30, eta gelditzen dena herriak du ordaindu behar; hau da, %20, eta zenbakiz, 12 000 € gordin, guti gorabehera. Funtzionamenduari dagokionez, herriak 300 € ordaindu beharko du zutabe bakoitzarentzat; hau da, orotara, 600 €.

Goytino jaunak gehitu du ibilgailu horiek urririk kargatzen ahalko direla, bi urtez, gutienez. Bere ustez, SDEPAk gerora deliberatuko du, beren gain izanen den zenbatekoaren arabera. Herriko ibilgailu elektrikoek dagokienez, hitzarmenaren 9. puntuan idatzia da urririk kargatzen ahalko direla, SDEPArekiko kontratuaren iraupen osorako; hau da, hamar urterako.

Bardin jaunak galdegin du partikularrendako urririk den kargatzea.

Goytino jaunak baietz erantzun dio, zehaztuz urririkakotasuna bi urterako dela.

Bardin jaunak galdegin du bi urteren buruan kargatzeko ordaindu beharko den, eta hala bada, zein izanen den instalazioa.

Goytino jaunak erantzun dio ez dela erabakia izan, baina bere ustez, zutabe horiek gerora ordainpekoak izateko gisan ekipatuak izanen direla.

Goytino jaunak gehitu du SDEPAk ekipamendu guzien kudeaketa eta mantentze-lanak beregain dituela.

Bacardatz jaunak galdegin du zenbat loki den zutabe bakoitzean.

Goytino jaunak ihardetsi dio zutabe bakoitzak bi loki izanen dituela, txostenean adierazi bezala: “ibilgailu elektriko edo hibrido orori dagokionaren arabera, bi lokiko bi sailen elikatzea”.

Bacardatz jaunak jakinarazi du zentzuzkoagoa izanen litzatekeela zutabe bakoitzaren parean aparkatzeko bi toki izatea, eta ez bat zutabe bakoitzarentzat. Planoaren arabera, auto-toki bat dago zutabe bakoitzarentzat. Beraz, bigarren autoa bidean aparkatu beharko da.

Goytino jaunak erantzun du zutabea bi tokien artean dagoela.

Bacardatz jaunak galdegin du bigarren zutabea non dagoen.

Goytino jaunak ihardetsi dio a priori zutabe bakar bat dagoela.

Bacardatz jaunak gehitu du, beraz, bi lokiko zutabe bat ezarriko dela, eta ez bi zutabe.

Goytino jaunak erantzun dio zutabe bakoitzean bi loki mota daudela.

Bacardatz jaunak zehaztu du Goytino jaunak adierazi zuena zela bi zutabe ezarriko zirela, bakoitza bi lokikoa; hots, lau loki. Planoan, zutabe bakarra ikusten du. “Herriak ez du 600 €-ko funtzionamendua ordainduko, zutabe bakar bat ezartzen bada”.

Goytino jaunak erantzun dio planoan zutabe bakarra agertzen dela, baina egiazki bi zutabe direla.

Bacardatz jaunak adierazi du, beraz, zutabe bat eskas dela planoan.

Goytino jaunak baieztatu dio, bere ustez, bi zutabe pentsatuak direla proiektu horretan.

Auzapez jaunak hitza hartu du, errateko gaia argitu behar dela. Dena den, herriko hautetsiek geroari aitzina hartzeko izan duten borondatea txalotu du, nahiz eta ibilgailu elektrikoen jabe gutik galdegin kargatzeko zutabeen ezartzea Kanbon. Sorhainde plazaren antolamendua gerorako hornitzeko eta uste baino lasterrago sortuko den galdeari ihardesteko parada izan zela. SDEPArekin sinatuko den hitzarmena ere txalotu du, horri esker herriak ADEMEren laguntzak eskuratuko baititu. Beraz, uste du eragiketa hori zinez interesgarria dela Kanborentzat.

Gehitu du ontsa litzatekeela hitzarmen horren sinatzeko baimena ematea eta hurrengo Kontseilurako zehaztea zutabeak bi ala lau loki dituen, ala bi lokiko bi zutabe diren, eta zutabe hori edo horiek non kokatuko diren zehazki.

Bacardatz jaunak galdegin du zertarako diren funtzionamendurako 300 € horiek.

Goytino jaunak erantzun dio mantentze-lanetarako parte-hartzea dela.

Bacardatz jaunak zehaztu du SDEPArekiko hitzarmenaren 4. artikuluan hau agertzen dela: “kargatzeko zutabeen hornitzea eta instalatzea, zutabeek kontsumitu energiaren eta zerbitzuaren erabilpenen diruztatzea. SDEPAk hirugarren bati dei egiten ahalko dio, zutabe horien mantentze-lanen zati bat edo dena beregain har dezan”. Beraz, ustiapenari eta mantentzeari dagokion guzua SDEPAren gain da. Beraz, zertarako dira 300 € horiek.

Goytino jaunak berriz erran dio mantentze-lanetarako parte-hartzea dela.

Auzapez jaunak zehaztu du SDEPAk erabakitzen duela nork duen esku hartzen mantentze-lanetarako. Beraz, herriak parte hartzen du, 300 € emanaz zutabe bakoitzarentzat.

Bacardatz jaunak adierazi du, beraz, herriak mantentze-lanetan eta energia kontsumoan parte hartzen duela. Beraz, prezio finko bat dela zutabe bakoitzarentzat.

Auzapez jaunak gehitu du kostua aise handiagoa zatekeela instalazio osoa herriaren gain izan balitz.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

7 eta 8 – Kanbo Behereko eskola: Estatuari diru-laguntzaren galdegitea, parlamentu-erreserba eta Baserrialdeko Lurraldean Ekipamendurako Dohatze gisa.

Auzapez jaunak Kontseiluko kideei oroitarazi die herriak urte hondarrean parlamentariei ala Estuatuari galdegin behar dizkien diru-laguntzak aitzinetik neurtu behar dituela, eta beraz, zerbait erabaki behar dela, epeak bururatzekotan izatea itxoin gabe. Ondorioz, Herriko Kontseiluari galdegiten zaio bi puntu horiei buruz iritzia ematea.

Noblia andereak jakinarazi du, 2015ean eta 2016ean herriko eraikinen hobekuntza energetikorako egin lanak segitu ahal izateko, herriak eraikin berri bat sortu nahi duela, Kanbo Behereko eskolako prefabrikatuaren ordezkatzeko. Herriak Eliane MENDIBOURE andereari dei egin dio, arkitektoa baita, proiektu horren egiteko eta obren zenbatekoaren neurtzeko. Eragiketa horiek hauek hartzen ditu barne: prefabrikatuaren suntsitzea, eta 100 m² inguruko maila bakarreko eraikin berri baten sortzea, ikasgela bat, biltzeko lokal bat eta mutikoendako eta neskendako komun bereiziak dituen atari ttipi bat. Egungo aterpearen Everite-eko teilatua hobekitzea ere proposatzen da.

Arkitektoak honela neurtu ditu kostuak: ordainsariak 33 000 €, amiantoaren kentzea 25 000 €, suntsitzea 30 000 €, eraikuntza 150 000 € eta teilatuaren hobekitzea 15 000 €; hau da, orotara, 253 000 €, gordin.

Inbertsio programa horrentzat Estatuaren laguntza lortzen ahal dugu, parlamentu-erreserba eta Baserrialdeko Lurraldean Ekipamendurako Dohatze gisa.

Herriko Kontseilua inbertsio-programa horri buruzko iritzia ematera deitu da, baimena emanaz Auzapezari:

- Obragintza Eliane MENDIBOURE anderearen esku uzteko.
- 253 000 € gordinen zenbatekoaren onartzeko.
- Estuatuari laguntzen galdegiteko, parlamentu-erreserba eta Baserrialdeko Lurraldean Ekipamendurako Dohatze gisa.
- Dagozkien agiri guzien izenpetzeko.

Auzapez jaunak gehitu du prefabrikatu horrek hogeita hamar urte baino gehiago dituela; hala ere, aski egoera onean da, baina energia mailan ezin txarragoa da, bai argitzeko, bai berotzeko. Zehaztu du presa handirik ez dela, aitzinetik ikusteko proiektua dela, baina herriak energiaren aurrezteko plana egiten duenez, aterpe horren aldatzea aurreikusteko parada dela. Obra horiek ez dira ezinbestean 2017ko aitzinkontuan sartu behar, baina laguntzak laster galdegin behar dira. Laguntzak lortzen badira, bi urteko epea da obren egiteko; beraz, laguntza horiek lortzea presazkoa da, eta gero erabakiko da herriak proiektua 2017rako atxikitzen duen ala 2018rako uzten duen.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du bere taldea pozten dela proiektu horretaz. Taldeko kideek aitzinetik Herriko Kontseiluetan ohartarazi bezala, Kanbo Behereko haurrak ez dira baldintza onargarrietan eskolatuak, batez ere Everite-eko teilatu horiekin. Proiektu horrez kontent dira eta espero dute 2017an egiten ahalko dela, haientzat lehentasunezkoa baita.

Auzapez jaunak erantzun dio gehiengoaren taldeak zuela proiektu hori planteatu, eta ez zutela oposizioa oharrek bultzatu zentzu horretan aitzinaraztera. Zehaztu nahi izan du amiantoaren izatea ez dela batere lanjerosa, eraikina guziz legearen araberakoa baita; funtsezkoa da ez sinetsaraztea herriak haurrak arriskuan jartzen dituela. Eraikin hori herriko lehengo langileek ezarri zuten, ezin hobe. Hastapenean, behin-behinekoa zen, eta oraino egoera onean dago.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

9 – Artelanen eta objektuen erostea Arnaga museorako: Eskualdeari diru-laguntzaren galdegitea, FRAM gisa.

Pontacq andereak oroitarazi du Erosketen Eskualdeko Batzorde Zientifikoaren 2016ko urtarrilaren 22ko aldeko iritziaren ondorioz, Kanboko herriak, 2016ko lehen hiruhilekoan, artelanak eta objektuak erosi zituela Arnaga museorako:

- Albert BESNARDen “Cyrano” akuarela, 3 000 €-koa;
- Daniel OGIERrek *Chantecler* antzezlanarentzat sortu bost jantzi, 4 111,50 €-rentruke.

Inbertsio horien kostuaren murrizteko, herriak Estatuari eta museoen erosketendako eskualdeko funtsari (FRAM) diru-laguntza galdegin zion. Arnaga museoko kontserbatzaile Béatrice LABAT anderea FRAMaren bilkurara joan zen, 2016ko irailaren 7an, Angoulême-era, galde horren berri emateko.

Eskualdeko batzorde permanentea 2016ko azaroaren 21ean bildu zen, eta herriari 2 400 €-ko diru-laguntza ematea onartu zuen (gastuen %30), honela banaturik:

- 900 € Cyrano akuarelarentzat,
- 1 600 € *Chantecler* antzezlanaren jantzientzat.

Hala, Auzapez jaunaren proposamenari jarraiki, Herriko Kontseiluari galdegiten zaio Auzapez jaunari baimena eman diezaion museoen erosketendako eskualdeko funtsari 2 400 € galdegiteko eta honako finantzamendu-plan honen onartzeko:

- Erosketaren zenbateko osoa: 7 122,50 €
- Akitania Berria Eskualdearen diru-laguntzaren zenbatekoa: 2 400,00 € (%34)
- DRACaren diru-laguntzaren zenbatekoa: 1 600,00 € (%22,50)
- Herriaren autofinantzamendua: 3 122,50 € (%43,50)

Herriko Kontseilua Auzapez jaunari horretarako desmartxa guzien abiarazteko eta dagozkien agiri guzien izenpetzeko baimena ematera deitu da.

Auzapez jaunak oroitarazi du LABAT andereak erosteko zerbait aipatzen diolarik, lehenik FRAMa kontsultatzen duela. Egungo erabakia, beraz, erosketaren ondotik heldu da, baina eragiketa horrentzat, eskualdeko arduradunak kasik segur ziren herriak sostengua lortuko zuela, objektu horien interes zientifikoa dela eta. Herriak erosi jantzi horiez gain, jantzi batzuk emanak izan dira.

Pontacq andereak baieztatu du bi jantzi emanak izan direla, gehi jantzi-osagai batzuk. Gehitu du osagarri horiek guziak Arnagan erakutsiak izanen direla udan.

Bacardatz jaunak kalkuluan arazo bat badela ohartarazi du. $900 \text{ €} + 1\,600 \text{ €} = 2\,500 \text{ €}$ eta ez $2\,400 \text{ €}$; beraz, herriaren autofinantzamendua $3\,022,50 \text{ €}$ koa da.

Pontacq andereak baieztatu du diru-laguntza $2\,500 \text{ €}$ eurokoa dela.

Auzapez jaunak ohartarazi du berri ona dela. Beraz, herriaren autofinantzamendua aldatu behar da.

Bacardatz jaunak gehitu du, oposizioari esker, herriak 100 € irabazi duela gai horretan.

Auzapez jaunak eskertu du eta indar txalogarri horietan segitzeko erran dio.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

10 – Kanboko mediatekarendako software baten erostea: Departamendu Kontseiluari diru-laguntza baten galdegitea.

Lespade andereak oroitarazi du, 2016an, departamenduko liburutegiak aholkaturik eta erabiltzaileek (kideek, turistek, kuristek...) hertsatuki egin galdeei ihardesteko, herriak mediatekako erabiltzaileendako eskaintza eta informazio-sistema aberastea erabaki zuela.

Horretarako, Syracuse softwarea erosi zuen, mediatekako langileei ostatatze aterabide bat eta proaktibotasunari bide emateko elkarlaneko lan-ingurumena eskaintzen diena, baita aterabide berritzaile eta dinamikoa ere, publikoarendako interneten zabaldu dokumentu-atariari esker.

Software horri esker, bestalde, mediatekaren funtzionamendurako beharrezkoak diren jardueren kudeaketa informatikorako Liburutegiaren Kudeaketa Sistema Integratua (SIGB) eguneratu da (bildumen eta erabiltzaileen, dokumentuen zirkulazioaren eta erosketen kudeaketa, estatistika-txostenen argitalpena).

Hau da 2016an egin inbertsioen zenbateko osoa, software horrentzat:

- 15 377,50 € gordin, softwarea martxan emateko
- 376,00 € gordin, atariaren mantentze-lanendako, urte guziz
- 985,00 € gordin, ostatatze mutualizatuarentzat, urte guziz

Inbertsio horren %50 Departamenduak hartzen ahal du beregain, liburutegi edo liburutegi-sare batendako softwareak eta informatika-materiala erosteko diru-laguntzaren bidez; hots, 7.688,75 € (15 377,50 €ren %50).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio Auzapez jaunari baimena eman diezaion Departamendu Kontseiluari diru-laguntza galdegiteko eta dagozkion dokumentu oro sinatzeko.

Lespade andereak gehitu du atari berri hori urrian eman zela martxan.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

11 – Diru-laguntza.

Dor jaunak bilkurako kideei Merkataritzaren Batasunaren galde baten berri eman die. Hala, beren lehendakari Ramuntxo Larramendyk galdegin dio herriak abenduaren 17 eta 18ko asteburuan haurrentako antolatuko diren animazioetan parte har dezan, urte guziz antolatzen den merkataritza-hamabostaldiaren baitan. Herriak iaz jada parte hartu zuen diruz. Herriko Kontseiluari proposatu zaio 1 000 €-ko diru-laguntzaren esleipenari buruzko iritzia ematea.

Auzapez jaunak gehitu du komertsanten indarraren sostengatzea ekimen ona dela, batez ere urte hondarrean.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

Auzapez jaunak Dor jauna eskertu nahi izan du, komertsantekin anitz inplikatu baita, batez ere Kanboko komertsant guziak ez, baina anitz biltzen dituen elkarte horrekin.

12 – Aitzinkontu orokorra: 1. erabaki aldarazlea.

Finantzetako axuant Devèze jaunak adierazi du lehen erabaki aldarazlea dela, bai aitzinkontu nagusiarentzat, bai saneamenduko aitzinkontu erantsiarentzat.

Aitzinkontu nagusiaren 1. erabaki aldarazlea aurkeztu du, zehaztuz aitzinkontua 68 080 €-tan orekatzen dela, bai gastuetan, bai diru sartzeetan.

Aldaketak arlo hauei eragiten diete, gastuentzat:

- Ekipamendu ttipien hornidurak: 30 000 €
 - Multiarisku asurantzak: - 1 831 €
 - Gainerateko asurantzak: 3 058 €
 - Ikerketak: 7 580 €
 - Orotarikoak: 30 000 €
 - Ondasunen garraioa: 500 €
 - CNFPTko eta CDGko kotizazioak: 450 €
 - Langile ez titularren ordainsariak: 19 670 €
 - URSSAF kotizazioak: 7 600 €
 - Erretreta-kutxetako kotizazioak: 1 380 €
 - Gainerateko langileen kargak: 5 981 €
 - Elkarreendako eta zuzenbide pribatuko bertze pertsonendako diru-laguntza: 3 800 €
 - Eguneroko kudeaketako orotariko kargak: 6 500 €
 - Ezohiko kargak: 1 584 €
 - Titulu deuseztatuak: 1 522 €
 - Ezohiko diru-laguntzak: 17 000 € (diru sartzeen ordea 7 000 €-tan)
 - Besteak: 729 €
 - Ustekabeko gastuak: - 2 943 €
 - Inbertsio saileko biramendua: - 70 000 € (890 000 €ko aitzinkontu nagusian pentsatua zen; beraz, berriz hartze horren bidez, 820 000 €-ra eramanen da)
 - Ikerketa gastuen amortizazioa: 5 500 €
- Hots, orotara, 68 080 €

Funtzionamendu gastu osagarri horien orekatzeko, diru sartzeak honela emendatzen dira:

- Arnagan egurraren moztea: 1 062 €
- Zerbitzu zerga (Arnagako sartzeak): 171 000 €
- GEHZek itzuli gastuak: 667 €
- Konpentsatze esleipena: - 276 895 € (Errobi Herri Ekargoak berrikusi konpentsatze esleipena)
- Leku aldaketa eskubideak: 83 000 €
- Funtzionamendu dohatze orokorra: 3 771 € (behin betiko zenbatekoaren jakinarazpena)
- Baserrialdeko elkartasunerako dohatzea: 36 971 € (behin betiko zenbatekoaren jakinarazpena)
- Departamenduaren parte hartzea: 7 000 € (17 000 €-k salbuespenezko diru-laguntzaren zati bat da)
- Dohatze osagarria: - 533 €
- Lur eraikien eta ez eraikien zergaren konpentsazioa: - 976 €
- Bizitegi zergaren konpentsazioa: - 3 625 €
- Doitze eta konpentsazioen esleipenak: 1 292 €
- Eguneroko kudeaketako orotariko mozkinak: 12 210 €
- Ezohiko bertze mozkinak: 2 513 €

- Mandatu deuseztatuak: 623 €
- Kudeaketazko obrak: 30 000 € (inbertsioen sailera sartzen dira)
Kontuak orekatuak dira, 68 080 €-tan.

Michelena jaunak jakin nahi du zer diren 6745 lerroko 17 000 €-ak, zuzenbide pribatuko pertsonendako ezohiko diru-laguntzei dagozkienak.

Devèze jaunak oroitarazi du gastuetako 17 000 € hoietatik 7 000 € mozkinetan direla. Beraz, 10 000 € gelditzen dira herriaren gain. 7 000 € horiek Cambo Evénements elkarteari Donostia 2016 kultur urtearen baitako Arnagako erakusketa kari eman genion diru-laguntzari dagozkio. Departamenduarengandik eskuratu ditugu, eta elkarre berari eta xede bererako eman behar zaizkio. Cambo Evénements elkartearen zen gertakari horren eragiketa-elkarrea.

Auzapez jaunak gehitu du Departamendu Kontseiluak 7 000 €-ko diru-laguntza herriari eman ziola, Cambo Evénements elkarteari zuzenean eman ordez.

Aiçaguerre andereak informazioak nahi lituzke Arnagako erakusketarendako langilearen zainketa postuari buruz.

Auzapez jaunak erantzun dio bilana ez dela oraino egina.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du zer diren gainerateko langileen kargendako 6 000 €-ak.

Devèze jaunak ihardetsi dio herriko langileendako ostatu-txartelen eragina dela, 2016ko urriaren 1etik goiti baliatzen baititugu. Zenbateko hori elkargoaren gain diren %60ei dagokie, hiruhileko batendako; gainerateko %40ak langileen gain dira.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du zeri dagokion langile ez titularren saileko 19 670 €-ko emendatzea.

Devèze jaunak ihardetsi dio Donostia 2016 kari Arnagan iragan zen arte garaikideko erakusketarendako enplegatu ziren langileen ordainsari gordinari dagokiola batez ere; dagozkien kargak hiru lerrotan banatuak dira.

Hiriart-Urruty andereak zainketa horrendako langile kopurua zein den jakin nahi du.

Devèze jaunak erantzun dio sei jende izan direla, aldizka.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du eguneroko kudeaketarako orotariko kargak nolaz bikoiztu diren, 6 500 € baino gehiagokoak baitira.

Devèze jaunak ihardetsi dio “herri erdigunea” eragiketa kari esleituak izan ziren laguntzen itzultzeak direla, bereziki FISAC eta RSI.

Erregularitze bat da, herriaren kaltetan, funtzionamendu gastu hautagarriak uste baino apalagoak izan direlako. Diru-laguntzak aitzinkontu baten arabera eman zizkiguten, eta beraz, itzuli behar izan ditugu.

Michelena jaunak galdegin du zein izanen den inbertsiorako pentsatua zen ordainketaren 70 000 €-ko beherapenaren eragina, gauzatzeari dagokionez.

Devèze jaunak ihardetsi dio funtzionamendu sailetik inbertsio sailerako biramenduan pentsatu 890 000 €-ko zenbatekoa 820 000 €-ra doita izan dela. Diru sartzeetan ageri da Arnagako

sartzeen zenbateko osoa, momentuz, erabaki aldarazlean idatzi zenbatekoa baino 27 000 € handiagoa dela. Halere, herriak 171 000 €-ko zenbatekoa atxiki du Arnagarendako diru sartze gehigarrietan, baina behin betiko zenbakia doi bat handiagoa izanen da. Azkenik, funtzionamendu sailetik inbertsio sailera pasatzen dena 820 000 €-koa bada eta ez gehiago 890 000 €-koa, aldaketa horrek aski eragin ttipia du hain aitzinkontu handian.

Devèze jaunak inbertsio saila aurkeztu du, erabaki aldarazle batekin; saila orekatzen da, 3 576 €-ko zenbateko ttipia hartuz:

- Itzuli bermeak: 1 883 €
- Bideetako materiala eta tresnak / gurpildun tresnak: 240 000 € } kontu batetik
- Garraioetako materiala: - 240 000 € } bestera pasatua
- Orotariko materialak: 25 000 €
- Bidean diren immobilizazioak – eraikuntzak: - 118 605 €: ttipitzeak, batez ere Arnagako lanak (kerubinak), hain zuzen – 180 000 €, eta obragehigarriak, elizan batez ere, hain zuzen 45 000 €.
- Instalazio, material eta tresneria teknikoak: 86 833 €
- Ustekabeko inbertsio gastuak: - 4 784 €
- Bidean diren immobilizazioak – instalazio, material eta tresneria teknikoak: 30 000 € (hilerriko paretaren obrendako baliatu materiala)
- Bide eta sareetako parte hartzeak (diru-laguntza amortizagarriak): 3 897 € (ordena-idazketa)
- Bidean diren immobilizazioak – instalazio, material eta tresneria teknikoak: - 27 800 € (immobilizazioko ikerketa gastu berresleituak)

Bacardatz jaunak azalpenak galdegin ditu elizako obrendako 45 000 €-ko zenbatekoari buruz.

Devèze jaunak erantzun dio bi osagai direla: Omiasainduko ezarri den behin-behineko berogailua eta obralaritzarako arkitektoarendako ordainsarien zati bat. 2016ko 45 000 €-ko zenbateko osoak elizako obren zati bat baizik ez du hartzen, aise gehiago gostako baitira; hots, 1 200 000 € inguru.

Bacardatz jaunak zehaztu du azken Herriko Kontseiluan 15 000 €-ko zenbatekoa bozkatu zela elizako berogailuarendako.

Devèze jaunak erantzun dio egin behar diren obra horien buxet-lerroan dela. Zehaztu dio arkitekto gastuak eta berogailuarendako gastuak 18 000 € ingurukoak direla, gehi 27 000 €, 2016ko abenduaren 31ko urteko negozio zenbatekoan agertuko diren gauzatzeko gaineratekoentzat.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak zehaztu du berogailuarentzat prozedura egokituak dituzten merkatuen batzordean onartu merkatuan zenbateko handiagoa dela. Obra horiek heldu den urtean egingen dira.

Bacardatz jaunak gehitu du prozedura egokituak dituzten merkatuen batzordean, elizako berogailuarentzat onartu zenbatekoa 15 000 €-koa zda, ez gehiago.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak erantzun dio 2016. urtean baliatu zenbatekoa 18 000 €-koa dela. 45 000 €-ko zenbatekoari esker, 2017 urtea 27 000 €-ko gehigarriarekin hasten dugu. Prozedura egokituak dituzten merkatuen batzordean onartu zenbatekoa berogailurako obrendako baliatuko da; horri “behin-behineko” deitu berogailua ezartzeko egin den trantxada gehitu behar zaio. Behin-behinekoa izanik ere, negu guzian baliatuko da berogailu hori. Berogailuari dagokion gaineratekoa ere gehitu behar da, DRACak ez baititu elizaren berotzeko obra

guziak diruz laguntzen. Hori dela eta, herriak ez du DRACaren oharpen erabakia itxoinen 1 200 000 €-ko obrentzat, berogailuarendako obrak dizako bertze obretatik bereiztekoak baitira. Berogailuarentzat DRACak elizan obrak hasteko baimena lortu aitzin herriak baliatuko eta ordainduko duen zenbatekoari dagokio.

Bacardatz jaunak jakin nahi du zenbatekoa izanen den, herriak prozedura egokitua duen merkatuen batzordean aurreikusiararen kasik bikoitza ordainduko baitu.

Auzapez jaunak proposatu du gai hori hurrengo bilkura batean berriz aipatzea, herriak arazo batzuk izan baititu DRACarekin. Alabaina, hastapenean, martxoan, berogailu elektrikoa ezartzea aholkatu zuen, baina gero, urrian, jarleku berotzaileak edo jarlekuen azpian moketa berotzaileak ezartzea gomendatu digu. Orain, gaia DRACaren eskuetan da. Zehaztu du momentuz behin-behineko berogailua dagoela, 2016-2017 negurako, eta ez dela, beraz, presarik obren egiteko; berantago egiten ahalko dira.

Bacardatz jaunak oroitarazi du erran zigutela egungo berogailuak elizako tinduak hondatzen zituela, eta horregatik ezarri behar zela berogailu elektrikoa. Harritua da DRACak herriari otsailean jakinarazi baitzion berogailu elektrikoa ezartzearen aukera. Hala bada, herriak behar zen indarra ezartzen ahal zuen elizan, elizako plazan egin diren obren kariatara. Azken Herriko Kontseiluan, DRACak herria agorrilean abisatu zuela erran zen.

Auzapez jaunak gehitu du, printzipioz, DRACeko ordezkariak gai hori segitzen duen ondare-arkitektoari baiezkoa eman ziola, eta, gero, DRACak gibelera egin duela eta erabakia aldatu duela. Egun, ez dago arazorik, arraberritze lanak ez baitira egin, eta beraz, hamarkadetan izan den berogailua oraino urte batez baliatzen ahal dela. Aldiz, tinduak berritzeko lanak hasi orduko, DRACa adi egonen da, ufagailu bidezko beroketak elizako apainketak eta tinduak kaltetzen baititu. Auzapez jaunak espero du egun batez DRACaren iritzi egonkor bat ukanen duela.

Bacardatz jaunak adierazi du obren batzordeari gibelatze eta obren deuseztatze horien berri ematea komeni litzatekeela, oposizioak ez baitu aldaketa horien berri. Obren batzordea obra ttipi horiez guziez arduratzen ahalko litzateke, bilduko balitz.

Auzapez jauna proposamen horrekin ados da, arrunt.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du, oro har, erabaki aldarazleko ildoen xehetasunak eskuratzen ahal dituen, idatziz eta aitzinetik.

Auzapez jaunak ihardetsi dio Devèze jaunak balio erantsi bat eman behar diola eztabaidari.

Hiriart-Urruty anderea ez da ados, eta galdea ofizialki berregin du.

Auzapez jaunak galdeari buruz gogoetatuko du.

Michelena jaunak, umorearekin, elizaren berotzeko urrikako aterabide bat proposatu du: mendetan, elizak ez ziren berotzen, beteak baitziren, besterik gabe. Pertsona bakoitzak ehun watt igortzen ditu; beraz, berrehun jende biltzen bada, hogeita mila watt sortzen dira, beraz ez da berogailurik ezarri beharrik.

Auzapez jaunak iritzi bera du, eta espero du heldu den igandean elizan ikusiko duela, bere wattak gehitzeko. Oposizioaren ekarpen baikorra eskertu du.

Devèze jauna erabaki aldarazlearen inbertsio sailera itzuli da, eta diru sartzeak xeheki eman ditu:

- Antolamendu zerga: - 64 000 €
- Ekipamendurako diru-laguntzak (Estatua): 189 695 €
- Ekipamendurako diru-laguntzak (Eskualdea): - 2 064 €
- Ekipamendurako diru-laguntzak (64DK): -44 885 €
- Ekipamendurako diru-laguntzak (Errobi HE): - 1599 752 €
- Ekipamendurako diru-laguntzak (Errobi HE): 1 599 752 €
- Sartu diren berme eta bahiak: 2 556 €
- Funtzionamendu saileko biramendua: - 70 000 €
- Immobilizazio saltzeen irabaziak: 3 525 €
- Ikerketa gastuen amortizazioa: 5 500 €
- Bide eta sareetako parte hartzeak (diru-laguntza ez amortizagarriak): 3 897 €
- Ikerketa gastuak: - 29 200 €
- Barneratze gastuak: 1 400 €

Devèze jaunak saneamenduko aitzinkontu erantsiaren 1. erabaki aldarazlea aurkeztu du. Zehaztu du inbertsio gastuei bakarrik eragiten diela erabaki aldarazleak, 3 253 €-ko dohatze gehigarriarekin, eta zenbateko hori ustekabeko gastuetan berreskuratzen dela, esleitu zenbatekoa 14 752 €-koa baitzen. Bainuetxeetan Halte bidean dagoen uren altxatzeko gailuarendako ponpak erosteari dagokio.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartu du. Hauek abstenitu dira: Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea eta Pantxo Michelena jauna.

13 – Inbertsio gastuen kredituak aitzinamenduz irekitzea.

Devèze jaunak, finantzetako axuant gisa, oroitarazi du, urte guziz bezala, ondoko ekitaldiko aitzinkontua bozkatu aitzin, herriak, ekitaldi hastapenean, inbertsio gastuei aurre egin behar diela. Horretarako, aitzineko ekitaldiko aitzinkontuaren, hau da, hastapeneko aitzinkontu emendatuaren edo erabaki aldarazleen %25era mugatu zenbatekoa du.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartu du. Hauek abstenitu dira: Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea eta Pantxo Michelena jauna.

14 – Euskal pastizaren besta: irabazien kudeaketa.

Irastorza jaunak adierazi du Herriko Kontseiluari iritzia galdegiten zaiola euskal pastizaren bestako toki-eskubideen zenbatekoen irabaziak herriak kudeatzeari buruz. Prezeturrak egin digu galde hori, kudeaketaren erregulartzeko. Alabaina, orain arte, turismo-bulegoak zituen toki-eskubide horiek kobratzen eta gero herriko kontulariari pasarazten.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

15 – 2017 tarifak.

Pontacq andereak oroitarazi du Arnagako 2017ko sartzeen tarifak aldatzean datzala. Gai hori jada aipatua izan zen azken Herriko Kontseiluan. “Turismo-partaide”-en tarifa murriztuak aipatu ziren (VVF, Enpresa Batzorde, gâtes plus txartel, Bide historiko, Gune eta museo eta abarrendako tarifak). Horiendako 2015eko urtarrilaren 1ean finkatu genuen 6,50 €-ko tarifa murriztua kuristei eta irakasleei ere zabaltzea proposatu zen.

Auzapez jaunak zehatu du, aurtengo, kuristak tarifa murriztu horretatik kentzea proposatzen dela, eta beste kategoriak atxikitzea.

Hiriart-Urruty andereak xehetasunak galdegin ditu irakasleentzat. Ikasle taldeekin jiten diren irakasleez ari gara?

Pontacq andereak zehaztu du, museo guzietan, irakasleek tarifa murriztua dutela. Orain arte, Arnagan ez zen baliatzen.

Auzapez jaunak baieztatu du ez dela klaseekin jiten diren irakasleentzat bakarrik, irakasle guzientzat baizik, kazetarientzat bezala, kultur guneetan tarifa murriztuak baitituzte.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du irakasle horiek soldata normala dutela. Azpimarratu du azken Herriko Kontseiluan elbarrituendako tarifaren emendatzeari buruzko eztabaida izan zela. Galdegin du emendatze hori mantenduko den.

Pontacq andereak erantzun dio kutzazainek jakinarazi dutela batzuetan elbarritu gisa jiten diren jende batzuen autoetan golf makilak ikusten dituztela.

Hiriart-Urruty anderea asaldatu du, egiazki elbarrituak diren jendeak zigortzen baitira.

Auzapez jaunak galdegin du zenbatekoa den elbarrituendako tarifaren emendatzea. Zehaztu du museo ororen politika dela tarifak noiztenka berrikustea. Ikusi behar da noiztik ez den emendatzerik izan.

Pontacq andereak aitzineko Kontseiluaren deliberamendua ez du hor, eta ez du gogoan zenbatekoa zen emendatzea.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du gorpil aulkian diren ahalmen urriko jendeek ezin dutela museo osoa bisitatu, lehen estaira ezin baitira igan.

Auzapez jaunak baieztatu du ezin dutela museo osoa bisitatu, dispentsaz, ez dagoelako iristeko sistemarik.

Pontacq andereak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die ondarearen fundazioak herriari 10 000 € eman diola. Zenbateko horrekin zutabeak ezartzea pentsatua da, eta jendeei tabletak ematea, museoko toki guzietara joan ezin dutenek barnealdea ikusi ahal izan dezaten.

Auzapez jaunak gehitu du, bestalde, etxe-behera bisitatzeko parada aztertzen ari dela herria.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du zer erabaki den elbarrituen tarifari buruz.

Pontacq andereak ihardetsi dio azken Herriko Kontseiluko bilduma ez duela hor.

Auzapez jaunak gehitu du gai hori ez dela egungo gai-zerrendan, eta Pontacq andereari proposatu dio hurrengo Kontseiluan aztertzea. Gehiengo taldeak erabakitzen badu publiko aski murrizt baina erreal horren tarifaren aldatzea, Pontacq andereari galdegiten dio proposamen batzuen egitea Labat anderearekin.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartu du. Hauek bozkatu dute kontra: Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak.

16 – Herriko lur batzuen alokatzea Petxoenean.

Peio Etchelecu jaunak oroitarazi du lur horiek 2002ko urrian erosi zituela herriak, eta orotara 7ha 23a 64ca-ko azalera dutela. Etchemendy-Fricain bikoteak ustiatu ditu, baserrialdeko alokatze-kontratu bidez, 18 urtez. Kontratua 2016ko otsailaren 29an bururatu da.

Herriak kandidatura deialdi bat egin du, hainbat laborariri zuzendua. Sei hautagai aurkeztu dira. Gunea bisitatu eta laborantza batzordearen zenbait bilkura egin ondoren, azken horrek, aho batez, lur horiek bi hautagai hauen artean banatzea erabaki du: David Chaldu jaunari 1 ha 59a 30ca-ko azalera, eta Mattin Darthayette jaunari 3ha 42a 32ca-ko azalera. Lur horiek baserrialdeko kontratuen araudiaren arabekoak dira. Baserrialdeko alokairu-kontratuaren kalkulatzeko indizea 109,59koa izanen da 2016rako, eta alokairua urte guziz berrikusia izanen da, Baserrialdearen eta Itsas Arrantzaren Kodeari jarraiki. Kontratua bederatzi urterako izenpetuko da, 2017ko urtarrilaren 1etik hasita.

Herriko Kontseiluak deliberatu behar du, David Chaldu jaunari 1 ha 59a 30ca-ko lurra eta Mattin Darthayette jaunari 3ha 42a 32ca-ko lurra alokatzeko, eta Auzapez jaunari bi alokairu horiei dagozkien baserrialdeko kontratuak sinatzeko baimena emateko, 4. mailarako finkatu urteko alokairuan oinarriturik.

Hiriart-Urruty andereak jakin nahi du bi laborari horiek kanboarrak diren.

Etchelecu jaunak erantzun dio David Chalduk etxaldearen helbidea Kanbon duela, eta Mattin Darthayette jaunak Luhuson duela etxaldea, baina lur gehienak Kanbon.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du Petchoenea etxaldearen ingurukorik izan den hautagaietan.

Etchelecu jaunak baietz erran dio. Zehaztu du batzordeak kontuan hartu duela jarduera nagusia laborantzari lotua izatea, eta abere-hazkuntza izatea. Batzordeko kideek banaketa hori aho batez erabaki dute.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du hurbiltasunaren irizpidea ez denez atxikia izan.

Etchelecu jaunak ihardetsi dio partez baietz, Darthayette jaunarentzat.

Auzapez jaunak zehaztu du Chaldu jauna Urkoiko bidean eta Gailurretako bidean/Route de Cimes bidean lurak dituen familia kanboar batekoa dela, eta laborantza batzordean badela oposizioko kide bat, Pantxo Michelena jauna.

Etchelecu jaunak adierazi du Michelena jauna proposamenarekin ados zela.

Auzapez jaunak oroitarazi du batzordeak aho batez hartu duela erabakia, oposizioko ordezkariaren boza barne.

Michelena jaunak gehitu du, esleipen irizpideetan, bi laborari gazte laborantzan plantatzea kontuan hartu zela.

Etchelecu jaunak zehaztu du adinaren irizpidea kontuan hartu zela, eta abeltzaintzari –eta ez landare hazkuntzari- lehentasuna ematearena, nahiz eta bietako bat Ezpeletako piperren hazkuntzan plantatu. Etxaldearen azalera osoa eta hautagaien laborantza-jarduera jarduera nagusia izatea ere kontuan hartu dira.

Auzapez jaunak baserrialdeko gaien batzordeari egin duen lana eskertu dio.

Aiçaguerre andereak adierazi du ez duela bozkan parte hartuko, auzo horretan loturak baititu.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartu du. Hauek abstenitu dira: Argitxu Hiriart-Urruty anderea eta Philippe Bacardatz jauna.

17 – Jendarmeria: alokairu-kontratuari 2. gehigarria.

Auzapez jaunak adierazi du herriak alokairu-kontratua erregulariki berrikusi behar duela, Barne Ministerioko jendarmeria-zerbitzuekin. Kontratu hori 2011ko martxoaren 6an sinatu genuen, eta Jabegoen zerbitzuek erabaki dute alokairua 48 600 €-tan finkatzea. 2011n, alokairua 45 454 €koa zen. Beherapen hori 2015eko alokairuendako erreferentzia-indizearen ondoriozkoa da, %0.01 negatiboa baita. Beraz, jendarmeriak alokairu beherapen ttipi bat ezartzen du.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du indize horrek herriko apartamendu guzien alokairuendako balio duen.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak erantzun dio INSEEk finkatu alokairuendako erreferentzia-indizea dela.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du herriko apartamenduen alokairuak apaldu diren aurtan.

Auzapez jaunak ihardetsi dio alokairu batzuk Jabegoen zerbitzuak, Estatuak finkatzen dituela. Jendarmeriaren eta Postaren alokairuak, hain zuzen.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

18 – Ipar Euskal Herriko Hirigunea: herriko ordezkarien izendatzea.

Auzapez jaunak kideei oroitarazi die ohar bat eskuratu zutela, Jean René Etchegaray Hautetsien Kontseiluko Lehendakari ohi jauna buru duen aitzineratzeko gidaritza batzordeak

aztertua. Ohar hori hamar HELEPei igorri diete, eta Errobi Herri Elkargoak die herriko hautetsiei pasarazi. Gehitu du Estatuaren zerbitzuetako dokumentu osagarri bat ere utzi dutela mahaien gainean, Prefekturak herriei 2016ko abenduaren 2an, ostiralarekin, e-mezuz helarazia.

Prefetak dokumentu hori “biziki garrantzitsua” dela zehaztu du, eta hau adierazi du: “uste dut komeni dela adieraztea zuen elkargo kontseilariak ahal bezain laster izendatu behar zenituzketela, HELEP berriak prest izan daitezen, urtarrileko lehen egunetan lanak abiarazteko eta beren ardurapean izanen diren politika publikoen behar bezala gauzatzeko ezinbestekoak diren erabakiak hartzeko. Hala, otoi, kasu horretan bazaudete, ahal bezain laster, eta ahal bada urte zibil hau bururatu aitzin, elkargo kontseilu berrietan izanen dituzuen ordezkariak izendatzea eskertuko genizueke.” Dokumentu horren eranskinean, Elkargo Kontseilu berri horretan zenbat jarleku izanen den eta nola banatuko diren zehaztua da.

Auzapez jaunak adierazi du egoera bat baino gehiago izaten ahal direla:

- herriak aitzinetik hautatu elkargo kontseilari kopuru bera du, eta beraz, ez da zailtasun handirik;
- herriari aitzineko herri hauteskundeetan hautatuak izan ziren kontseilari kopurua baino kopuru apalagoa esleitu zaio;
- herriari esleitu jarleku kopurua aitzineko aldian hautatu elkargo kontseilari kopurua baino handiagoa da.

Kopuru bera bada, ez da deliberatu beharrik.

Kanboko herria bigarren kasuan da: jarleku gutiago izanen da herri kontseilariak hautatzearekin batean hautatu ziren elkargo kontseilarien kopurua baino. Bi egoera daude: 1000 biztanle eta gehiagoko herriena eta 1000 biztanle baino gutiagokoena.

1000 biztanle baino gutiagoko herrientzat, aise da, taulako ordena da kontuan hartu behar.

Baina Kanbo 1000 biztanle ala gehiagoko herrietako bat denez, “organo erabakitzaile berriko kideak kargutan diren elkargo kontseilarien artean hautatzen dira, itzuli bakarreko zerrendakako bozkan, izenik gehitu ez kendu gabe. Zerrenden arteko jarleku banaketa proportziosko ordezkariaren bidez finkatzen da, batez besteko gorenarekin. Lurralde Elkargoen Kode Orokorren arabera, kargutan diren kontseilariak nahi bezainbat zerrenda sortzen ahal dituzte. Jarleku kopurua apaltzen bada, ez da parekotasuna errespetatu beharrik. Ez da batere 2014an pentsatuak ziren zerrendetan oinarritu beharrik zerrenda berrien egiteko”. Beraz, orduan aurkeztu ziren zerrendetatik bereiztea posible da.

Auzapez jaunak zehaztu du Kanboko herriak sei ordezkari zituela, eta hiru izanen dituela; beraz, Ipar Euskal Herriko Hirigunean izanen ditugun ordezkariak hautatu behar dira. Legeari jarraiki, zerrendak aurkeztea proposatu du.

Gehiengoaren taldeari dagokionez, eztabaidatu ondoren, hiru izen proposatu ditu: Vincent Bru jauna, Christian Devèze jauna eta Didier Irastorza jauna. Zehaztu du Bernadette Jougoux andereak eta Eliane Noblia andereak jakinarazi dutela ez dutela hautagai izan nahi. Beraz, hiru izen horiez osatu zerrenda bozkaraziko zaio Herriko Kontseiluari.

Hiriart-Urruty andereak, elkargo hautetsi gisa, adierazi du bakarrik aurkezten duela bere burua, joan den astean Auzapezarekin bildu zelarik jakinarazi zion bezala. Bozkatzeko metodologia oroitarazi du, denentzat argi izan dadin: bada bozka paper bat gehiengoaren taldeko hiru izenekin, eta beste paper bat bere izenarekin. Bozka paper batean izen bat marratzen bada, edozein izanik ere, baliogabetzen da. Kontseiluko kideek bi aukera baizik ez dituzte: gutun-azalean gehiengoaren papera jartzea, ala berea; ezin dira bi bozka paperak gutun-azalean sartu. Zehaztu nahi izan du ezin dela gehiengoaren zerrendan izen bat kendu eta horren ordez berea ezarri.

Auzapez jaunak adierazi du ados dela.

Bozkatu aitzin, Hiriart-Urruty andereak gutun bat irakurri du:

“2014ko herri hauteskundeetan, gure zerrendak 793 boz lortu zituen; hau da, adierazi bozen %28. Ehuneko horri esker, Kanbok Errobi Herri Elkargoan dituen 6 elkargo-hautetsietatik bat izatea lortu genuen.

Egun, arau hori errespetatuko balitz, HELEP berriaren ere, 3 hautetsietatik bat izanen genuke. Baina NOTRe legeak ez du halakorik aipatzen.

Alabaina, hauteskundera Herri Kontseiluan berean egiten da, eta beraz, oposizio guziak eta beren hautesleak ezin dira demokratikoki ordezkatuak izan.

Hemen, Kanbon, HELEP berriaren onartzeko bozkan, zuen gehiengoak Ipar Euskal Herriko Hirigune berri horren alde bozkatu zuen, kontuan hartuz interes handia izanen zuela guretzat eta ondoko belaunaldientzat (hizkuntza, ekonomia, garraioak, unibertsitatea...).

Egun, ene burua aurkezten du, errotik proiektuaren alde bainaiz, hastapenetik, eta azpimarratu nahi nuke baikorki lan egiteko garrantzitsua dela zinez konbentzituia izatea.

Erakunde berri baten eraikuntza garai honetan, sentsibilitate ezberdinekin aritzea eta molde konstruktiboan lan egitea zilegi da.

Bestalde, HELEP horretan, parekotasuna ez da gehiago beharrezkoa, eta ERROBI Herri Elkargoa ordezkatzeko duten 14 kontseilarietatik bakar bat da emaztea.

Emazteak politikan eta organo erabakitzaileetan ordezkatuak izatearen zilegitasuna eta garrantzia azpimarratu nahi ditut.

HELEP horrekin, gure historiaren orri berri bat idazten ari gara, eta galdegiten dizuet gaurko bozka horren garrantzia neurtzea eta bereizketa batzuen gainditzea, kanboarren eta oro har Euskal Herriaren mesedetan.

Milesker”.

Auzapez jaunak adierazpena eskertu dio. Ulertzen du orain arte Errobi Herri Elkargoko kide zenarentzat ez dela egoera goxoa, beharbada, jarlekuen kopurua seitek hirura murrizteagatik, ezingo duelako Ipar Euskal Herriko Hirigunean hautetsi izan. Baina legeak hala dio: Kanborentzat, kargutan diren kontseilariak baizik ezin dute beren burua aurkeztu. Orain arte hautetsi ziren bi emazteek ez dutenez gehiago kide izan nahi, ezin dugu hiru hautagaietako baten ordezkari bat eman. Kanbon, bada gehiengo bat eta oposizio bat; eta legeari jarraiki, Herriko Kontseiluko proportziozko ordezkariak da kontuan hartzen, gehiengo batez bestearekin.

Auzapez jaunak baieztatu du Hiriart-Urruty anderearekin bildu zela, eta erran ziola HELEParen kontra agertu ziren hautagai batzuk baztertu behar zirela, hemen izendatuko ez dituen bi izen emanez.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du ez zela auzapezarengana joan bi izen horiek kendu behar zirela errateko, baizik eta bere burua aurkeztu nahi zuela baieztatzeke, uste baitzuen proiektuaren kontra agertu ziren jende batzuek baino zilegitasun gehiago zuela.

Auzapez jaunak erantzun dio, biziki argiki, ez zuela ulertzen zergatik, gai horretan, oposizioarekin elkartu beharko lukeen, hautesleek ez zutelako ulertuko, Hiriart-Urrutyren taldea erabateko oposizioan kokatzen baita, herri aldizkarian idazten dituzten artikuluek eta gehiengoaren taldearenganako konfiantza faltak frogatzen duten bezala; ez du, orain, zerrenda bakar halako bat eginen, Hiriart-Urruty andereari toki bat emateko hiru hautagaien artean. Uste du desonesta litzatekeela eta hautesleek ez luketela ulertuko. Auzapez jaunak, beraz, hautagaien zerrenda mantentzen du.

Auzapez jaunak gehitu du Ipar Euskal Herriko HELEPa sortzeari ala ez sortzeari buruzko eztabaida bukatua dela. Ipar Euskal Herriko Hirigunea, juridikoki, 2017ko urtarrilaren 1etik goiti hor izanen dugu, eta konkretuki, lehendakaria, lehendakariordeak, batzorde iraunkorra eta bulego exekutiboa izendatuak izanen direlarik abiatuko da; hau da, agian, urtarrilean edo otsail hastapen-hastapenean. Orain, jakin behar dena da zein den Errobiko lurraldea batetik, eta Kanboko herria bestetik, ahal bezain ongi ordezkatuak izateko moldea.

Auzapez jaunak adierazi du Christian Devèze jaunak kalitate handiak dituela, bai hautetsi gisa, bai finantza-aditu gisa, eta ez luke ongi ikusiko bere burua Hirigune batera joaten gai horretako aditurik gabe. Biltzarrean, gaitasun handiak dituzten eta Errobiko lurraldea eta Kanbo defenditzen dituzten jendeak behar dira. Kontua ez da jakitea Christian Devèze jaunak iritzi hau ala hura zuen, hori berari dagokio; gerora, dena den, Hirigune bat izanen da. Beraz, ez da eztabaida hori berriz piztu behar.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du Devèze jauna aski handia dela mintzatzeko.

Auzapez jaunak erantzun dio Devèze jaunak nahi duena erranen duela. Hiriart-Urruty andereari bere azalpena, bere ikuspuntua eman dio. Kontua ez da jakitea nor den HELEParen alde edo kontra egun, HELEPa 2017 hastapenean sortua izanen da. Orain, gaia da nork ordezkatu duen Kanboko herria. Bere taldean eztabaidatu ondoan, kargutan diren bostetatik, bik ez zuten hautagai izan nahi, eta kontent da Christian Devèze eta Didier Irastorza jaunek beren burua aurkeztu baitute, biek jada parte hartu baitute Errobi Herri Elkargoaren funtzionamenduan, eta espero du geroko Hirigunean hala segituko dutela.

Devèze jaunak zehaztu du gai horri buruz jada dena errana duela. Ez du erantzun beharrik, Argitxuren hitzetan ez baitu bere izenik entzun. Jendetasunez, bere izena ez du aipatu, eta beraz, ez du batere beretzat hartu. Gehitu du, hala ere, Hiriart-Urruty anderearekin ados dela NOTRe legeari buruz. Alabaina, bere ustez, jende anitzentzat bezala, 6 800 biztanleko hiri batentzat hiru ordezkari guti dira, lehen sei baitziren. Gai horretan, NOTRe legea zaila da gauzatzen Errobiko lurraldean eta Kanboko herrian.

Auzapez jaunak zehaztu du gobernantza ituna aztertua izan dela. Elkargo Kontseiluaz gain, “lurraldekako guneak” deitu deskontzentrazio sistemak izatea proposatua izan da. Hau da, hamar lurraldeko gune izanen dira, egungo hamar HELEPei dagozkienak, eta gune horien baitan, lurraldeko gune kontseiluak izanen dira, lehengo Herri Elkargoko edo Hiriguneko kideez osatuak.

Auzapez jaunak gobernantza-itunaren 2.2.2 artikulua irakurri du (Lurraldekako guneen kudeaketa eta gobernantza): “Lurraldekako guneek, beren perimetroan, hurbileko kudeaketaren ardura dute. Lurraldeko gune kontseilu bat sortuko da lurraldeko gune bakoitzarentzat. Bere perimetroko herrietako ordezkariak osatuko dute Kontseilu hori, Elkargo Kontseiluko kideek. 2020an herriko kontseiluak berritu arte, lurraldeko gune bakoitzaren Kontseilua bateratu diren herriarteko lankidetzako elkargo publiko ohietako kontseilariak osatua izanen da”. Hau da, Errobiko elkargo kontseiluko kide guztiak lurraldeko gune kontseilu horren kide izanen dira.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du bozkek isilpekoak izan daitezen eta Kontseiluko kide bakoitza bozka-kabinara sar dadin.

Auzapez jaunak erantzun dio, berak galdeginik, gutun-azalak eta bozka paperak prestatu dituztela: paper bat hiru izeneko zerrendarekin, paper bat Hiriart-Urruty anderearen izen bakarrarekin eta paper zuri bat.

Bozka hasi da, Bardin jaunaren eta Hiriart-Urruty anderearen aitzinean.

Bozak Bardin jaunak eta Hirigoyen andereak kontatu dituzte.

Emaitzak:

Bozkatzaileak: 29

Adierazi bozak: 29

Auzapez jaunak aurkeztu zerrendak 29 bozetatik 24 bildu ditu.

Hiriart-Urruty andereak aurkeztu zerrendak 29 bozetatik 5 bildu ditu

Hauek dira hautatuak:

- Vincent BRU
- Christian DEVEZE
- Didier IRASTORZA

19 – Errobi Herri Elkargoa: CLECTaren txostena.

Devèze finantzetako axuant jaunak oroitarazi du CLECTa joan den azaroaren 18an bildu zela, ostiralarekin, Errobi Herri Elkargoak bi gaitasun berri izanen dituen, lehen haurtzaroa eta igerilekuak hain zuzen, eskualdatuko diren kargen kariatara herriei esleituko zaizkien konpentsazioen zenbatekoak behin betiko finkatzeko.

Zehaztu du Kontseiluko kide guziek CLECT txostena eskuratu zutela eta konpentsazio esleipen horiek kari izan diren berrikusketak ikusi ahal izan dituztela.

Kanbori dagokionez, oroitarazi du fiskalitate bakarrera pasatzean finkatu zen konpentsazio esleipena 2011. urteko oinarriekin finkatu zela, eta 1 059 508 €koa zela.

CLECTaren txostenari erantsi laburpen taulan, bigarren zutabean, 2016ko apirilaren 13an konpentsazio-esleipena 423 803 €-ra emendatua izan zela ageri da. Hala ere, hirugarren zutabean, duela egun batzuk egin den murrizketa ageri da: -211 902 €. Azkenik, lehen haurtzaroari dagokion kargak eragin ezkorra du, 140 718 €-koa, eta igerilekuarenak 84 133 €-koa. Beraz, 2017rako behin betiko esleipena 922 194 €-koa izanen da.

Devèze jaunak gehitu du Hirigune berriak igerilekuen gaitasuna zalantzan ematen badu, Kanbok 84 133 €-ko neutralizazio bat izanen zuela, bere mesedetan.

Ohar berak lehen haurtzaroarentzat ere balio du; Hirigune berriak ez badu beregain hartzen, konpentsazio-esleipen bat izanen da Kanborendako, kasu horretan 140 718 €-koa.

Auzapez jaunak oroitarazi du lehen haurtzaroaren gaitasuna 2016ko urtarrilaren 1.ean eskualdatu zela, baina egitura batzuentzat, 2015eko egoera egonkortua ez zen egina, adibidez CAFaren parte hartzeentzat. Horregatik agertzen zen lehen haurtzaroa CLECTaren azken bilkuran. Igerilekuari dagokionez, herriek karga errealean %60 beren gain hartzea erabaki zen, Errobi Herri Elkargoak hartuko baitzituen gainerateko %40ak, herri arteko egituren indar gisa. Kanborentzat, 2015eko karga errealak 140 221 €-koak ziren; konpentsazio-esleipenetan, zenbateko horren %60 atxiki zen herriarentzat; hau da, 84 133 €. Gaineratekoa Herri Elkargoari zegokion, inguruetakoa ikasleak ere jiten baitira Kanbora.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

20 – Errobi Herri Elkargoa: hirigintza baimenak ikertzeko hitzarmenari gehigarria.

Bardin jaunak oroitarazi du 2015eko otsailaren 11ko deliberamenduaren bidez, Errobi Herri Elkargoak erabaki zuela herri kideendako hirigintza baimenak ikertzeko elkargo zerbitzu baten sortzea.

Hitzarmen batean, hauek zehaztu ziren: ikerketa-zerbitzua eskura emateko moldeak, eta lurren okupatzeari eta erabilpenari buruzko baimenen ikerketa-prozeduran Errobi Herri Elkargoko herri kide bakoitzak izanen duen eginkizuna.

Hala ere, Herri Elkargoko hirigintza zerbitzuak zerbitzu berriak proposatzen ditu, post-ikerketaren baitan. Herriek zerbitzu berri horien kide egiteko parada dute. Beraz, hitzarmen hori zuzentzea komeni da.

Herriko Kontseiluari proposatu zaio Auzapez jaunari baimena ematea Errobi Herri Elkargoarekiko hitzarmenari eginen zaion gehigarria izenpetzeko.

Bardin jaunak zehaztu du Herri Elkargoko hirigintza zerbitzuak hartuko duela beregain obren bururatzeko deklarazioa. Beraz, haiek egiaztatuko dute eraikuntza obrak bat datozen eraikitze baimenekin.

Auzapez jaunak gehitu du gerora Hiriguneak eginen duela kontrol hori. Interesgarria da kontrolatzailea ez herrikoa izatea.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

21 – Errobi Herri Elkargoa: estatutuen aldatzea.

Auzapez jaunak adierazi du estatutu-aldaketa hori Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluak duela galdegin. Errobi Herri Elkargoak lurralde antolamenduaren gaitasuna hartzeari dagokio. Izan ere, Estatuarekiko hitzarmen baten karietara, Departamendua Estatuko agintariak abian eman zuten oso abiadura handiko eskemarako hautagai egin zen. Eskema numeriko handinahi horren abian jartzeko, egungo HELEPekin kontratuak egitea pentsatu behar da. Gai horrek agerian eman du zenbait HELEPek, bereziki Euskal Herrian, lurraldearen antolamendu numerikoaren gaitasuna ez zutela hartu. Beraz, 2017ko urtarrilaren 1.ean HELEP batzuek bakarrik eskualdatuko dute gaitasun hori, ez denek. Horrek lurraldeekiko negoziazioak gibelatzen ahal zituen, Hiriguneak hartu beharko baitzuen lehenik gaitasun hori, eta gero negoziatu.

Beraz, Errobi Herri Elkargoari, lurraldearen antolamendu numerikoaren gaitasuna ez zuenez, gaitasun hori hartzea proposatu zaio. Azken Elkargo Kontseiluan hala egin zuen, eta orain, elkargoei galdegiten die eskualdatze horri buruz iritzia ematea.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

22 – Eссор basque bizikleta-lasterketa: hitzarmena.

Irastorza jaunak adierazi du Herri Kontseiluari galdegiten zaiola Auzapez jaunari Eссор basque-ekiko hitzarmena sinatzeko baimena eman diezaion, Guiche eta Kanboren arteko 2017ko

bizikleta-lasterketa antolatzeke, 2017ko otsailaren 5ean. Kanbo helmuga herria izanen da. Essor basque-ek 2 000 €-ko parte hartzea galdegiten dio herriari.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

23 – Hilerriko laneko bizitegia: 2016ko ekainaren 6ko deliberamenduaren indargabetzea.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak oroitarazi du Herriko Kontseilua joan den ekainaren 6an bildu zela eta hilerriko zaindaritza lanak egiten dituen agenteari laneko bizitegi bat esleitzea deliberatu zuela, 120 €-ko hilabeteko alokairuaren truke. Zerbitzu zerga hori hitzarmenaren onuradunaren gain eman da, eta okupatu bizitegiaren balioaren %50i dagokio.

Baionako suprefetak Jabegoen zerbitzuari dei egin dio alokairu-balioaren neurtzeko. Hilabetean 390 € balio duela adierazi du, eta beraz, zerbitzu-zerga hilabetean 195 €-koa izen behar dela.

Herriko Kontseiluak hilabeteko zerbitzu-zerga 120 €tan finkatu zuen. Beraz, deliberamendu hori berriz hartu behar du, suprefetak legez kanpokoa dela adierazi baitu. Beraz, Auzapez jaunak proposatu du zenbateko berri horri buruz deliberatzea; hau da, hilabetean 195 €, eta beraz, joan den ekainean bozkatu ziren 120 €-ak baino 75 € gehiago.

Auzapez jaunak zehaztu du interesdunei neurri horren berri eman zaiela.

Aizaguerre andereak ohartarazi du deliberamendu hori hirugarren aldiko heldu dela Herriko Kontseilura. Otsaileko lehen Kontseiluan erran zuten, lege berriaren arabera, merkatuko prezioaren arabeko egiazko balioaren %50 zela kalkulatu behar. Gehiengoaren taldea kalkulu jakintsuetan tematu zen, bizitegi zergan oinarrituz, erranez Kudeaketa Zentroko zerbitzu juridikoek kalkulu molde horiek onartu zituztela. Ohartzen da, azkenean, merkatuko prezioaren arabeko egiazko balioaren %50, ez dela hain kalkulu konplikatu.

Auzapez jaunak erantzun dio ohar horiek dagozkienei helaraziko dizkiela.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

24 – Justizian ekiteko gaitasunaren ematea.

Auzapez jaunak adierazi du herriak justizian dituen bi kasuz ari dela. Ekintza horiei segurtasun gehiago emateko, elkargoko abokatuak Auzapezari justizian ekiteko ahalmena ematea galdegin du, nahiz eta Herriko Kontseiluak ahalmen delegazio bat deliberatu 2014an. Jurisdikzio zenbaitentzat, batzuetan, deliberazioa ez da beti osoa; prozedura akats edo gaitasun akats kontu bat da, eta batzuetan ondorio larriak izan ditzake.

Beraz, Herriko Kontseiluari galdegiten zaio Auzapezari bi kasu hauetan esku hartzeko ahalmena eman diezaion:

Lehen kasua laborantza erabilpenerako eraikin bati buruzkoa da, bizitzeko etxe bilakatu baita; bigarrena herriarekin auzi bat duen langile bati dagokio.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

25 – Uraren eta saneamenduaren zerbitzu publikoa: 2015 urteko txostena.

Devèze jaunak oroitarazi du herriak ur edangarriaren gaitasuna URA sindikatuari eman ziola. 2015. ekitaldiko ur edangarriaren zerbitzu publikoaren kalitateari eta prezioari buruzko txostenaren arabera, Kanboko herriak 3 526 kontagailu zituen 2015ean, eta 3 467 aitzineko urtean. Urtean 2 742 535 m³ fakturatu zen 2014an, eta 2 910 018 m³ 2015ean; hots, %5,76 emendatu zen. Uraren prezioari dagokionez, 2015ean, 1,77 €-koa zen, zergak barne, m³-ka (urtean 120 m³-ko kontsumoarentzat); 2014an, aldiz, 1,72 €-koa zen, zergak barne, m³-ka; beraz, prezioa %2,80 emendatu da.

Bilkura hastapenean banatu taulari jarraiki, aldaketa horiek ez dira elkargoaren kontsumotik heldu, baizik eta laborariarenetik.

Devèze jaunak URAREN mailako gertakari aipagarri bat zehaztu du. Sindikatuak SUEZekin berriz negoziatu du, eta aldaketa nagusiak gehigarri batean bilduak dira. Bost punturi dagozkie:

- URA sindikatuak obra berrien barneratzearen ondoriozko ustiaketa kostuak beregain hartzea (Arnaga behealdeko “Etienne Durruty” presioa handitzeko gailua bereziki)
- urtean 10 K€-ko berritze-bermearen apaltzea (birdoiketak kontratuetan)
- Kontagailuen gehieneko adina 15 urtetik 20 urtera luzatzea (zerbitzu kostuetan eragin handia du)
- Laborariaren ordainsari-formularen egokitzea, kontratuaren 40. artikulua kenduz,
- Zati finkoaren balioespenaren doitzea.

Ur edangarriaren arloan egin obrei dagokienez, Errepera (570 ml) eta Halte (390 ml) bideetako sareen berritzean datza bereziki.

2015. ekitaldiko saneamendu zerbitzu publikoaren kalitateari eta prezioari buruzko txostenari dagokionez, Devèze jaunak adierazi du, oraingoz, gaitasun hori ez zela eskualdatu. Finantzei dagokienez, fakturatu bolumenak 422 160 m³ tratatutik 455 324 m³ tratatura pasatu dira 2014tik 2015era; hots, 33 000 m³ baino gehiago emendatu dira. 2015ean 57 abonamendu gehiago izan dira; hau da, 2014an baino %1,80 lotura gehiago. Tarifen aldetik, banaketa eta tratamendua orekatzen dira. Banaketa 1,77 €-tan da; hau da, URAREN baliatzen duen ur edangarri zerbitzuaren kostua. Ur zikinen bilketa eta tratamenduarentzat (herriaren gaitasuna), kostua 2,27 €-koa da. Beraz, prezioa, m³-ka, 120 m³-ko kontsumoarentzat, 4,04 €-koa da.

Osagai teknikoari dagokienez, ur zikinen sare hertsiki banatzailearen luzera 43,2 km-koa da; 17 ekaitz isurgi eta uren altxatzeko 15 gailu daude.

Auzapez jaunak gehitu du gai hori ez dela bozkatu.

Etchelecu jaunak jakin nahi du Lyonnaise des eaux-rekiko kontratua noiz bukatzen den.

Devèze jaunak erantzun dio kontratua 2015ean berritu dela, hamabi urterako.

26 – Langileak.

Auzapez jaunak adierazi du gai horrek bi osagai dituela:

Erroldaren egiteko langileen enplegatzea; alabaina, 2017ko urtarriletik goiti, INSEEk gauzatzen duen Estatuaren gaitasunaren baitan, herriko biztanleen errolda egingen da. Herriko zerbitzuek hamazazpi distrika bereizi dituzte errolda demografiko horren egiteko. Beraz, erroldaren egiteko hamazazpi langile eta langileen koordinatzaile bat enplegatzea proposatzen da. Erroldaren egiteko hamazazpi langileez gain, herriak bi gehiago aurreikusi nahi ditu, enplegatu langile batek edo bestek gibelera egingo balu ordezkatu ahal izateko. Herriko Kontseiluko kideei banatu dokumentuan, langile horien ordainsariaren xehetasunak agertzen dira. Auzapez jaunak zehaztu du Estatuak ez dituela gastu erreala ordaintzen, baizik eta 12 200 €-ko prezio finkoa diola. Esperientziaz, badakigu gehienetan zenbateko horrek ez dituela herriak ordaintzen dituen gastu guztiak estaltzen.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak gehitu du erroldaren kostua Patrick Peña jaunarekin neurtu dela, eta 21 000 € ingurukoa dela.

Auzapez jaunak oroitarazi du Estatuaren gaitasun bat dela eta ez herriarena, baina Estatuak herriak ordaindu gastuen erdia inguru baizik ez diola itzultzen. Gaineratekoa herriko aitzinkontutik ordaindu behar da; herriak ordaindu behar du, beraz, Estatuaren izenean.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du enplegatu langileak kanboarrak diren.

Auzapez jaunak ihardetsi dio batzordeak ez duela oraino iritzirik agertu. Galde anitz izan dira; Bernadette Jougoux andereak, Patrick Peña jaunak eta zerbitzuetako zuzendari nagusiak heldu den ostegunean aztertuko dituzte kandidaturak, eta ondotik, batzorde tekniko horren proposamenak agertuko dituzte.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

Bigarren puntua herriko langile batendako lanpostu bat sortzeari buruzkoa da. Alabaina, langile horrek lanbide azterketa bat gainditu du, eta beraz, 2. mailako teknikari laguntzaile zena 1. mailako teknikari laguntzaile bilakatzen ahal da.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

27 – Auzapezaren erabakien berri.

Lurralde elkargoen kode orokorreko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluei eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko Kontseiluaren deliberamenduari jarraiki, hauek jakinarazten dira:

1º) lehentasunez erosteko hiri eskubideari dagozkion ezezko erabakiak, 2016ko irailaren 17tik 2016ko azaroaren 18ra:

- Lursaila: 3

- Etxea: 4
- Apartamendua: 4
- Eraikina: 2
- Sotoa: 0

2º) hilerriko kontzesioen emateari eta berriz hartzeari buruzko erabakiak, 2016ko irailaren 17tik 2016ko azaroaren 18ra:

- 15 urteko kontzesioen erostea: 2
- 30 urteko kontzesioen erostea (+hilobiak): 1
- 30 urteko kontzesioen erostea (+ kolunbarioak): 0
- 15 urteko kontzesioen berritzea: 1
- 30 urteko kontzesioen berritzea (hilobiak): 2
- Urririkako lursailen berriz hartzea: 0

28 – Gainerateko gaiak.

- Etchelecu jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die euskararen eta parekatzearen batzorde dinamikoak, heldu den abenduaren 15ean, *Le Bataillon Gernika* emanen duela l'Aiglou zinema-gelan. Zinemaren programako informazioen kontra, bi saio izanen dira: saio bat 19:30ean frantsesez eta beste bat 20:30ean euskaraz; ondotik, eztabaida izan da Franck Dolosor zuzendariarekin eta aldibereko itzulpena izanen da, euskaraz mintzatuko baita. Denak parte hartzera deituak dira, gure lurraldearen historiako memento garrantzitsua baita.
- Michelena jaunak e-mezuz igorri zuen idatzizko galdea errepikatu du; hala, herriak azkenaldian antolatu kultur eta arte gertakarien bilana, Arnaga 2016 erakusketari, Estivales antzerki jaialdiari eta Sebastián Durón egunei buruzkoa, eskuratu nahi luke. Gertakari horietako bakoitzaren aitzinkontua zein den jakin nahi luke.

Auzapez jaunak erantzun dio lehen gertakariarentzat, hau da, Donostia 2016 Europako kultur hiriburua kari antolatu Arnaga 2016 erakusketarentzat, abendu erdian bilkura bat izanen dela Echanges Pays Basque elkartearekin, ondorioen ateratzeko; ez bakarrik diru-bilana, baizik eta eragiketaren bilan orokorra. Beraz, oraingoz, ezin du informazio gehiago eman.

Hala ere, erran dezake aurreko parte hartze ona eta jende kopuru handia izan dela Arnagan, batez ere agorrilean, eta bere ustez, kalitate horretako gertakariak, hirurehun jende bildu baitzen estreinaldian, alde batetik guneari fama ematen diote, hegoaldean ezagutarazten dute, eta irekitasun izpiritua erakusten dute, Rostand familiaren omenezko gune horretan arte garaikidea sartu baita, batik bat.

Joan den udako Estivales festibalari eta Sebastián Durón egunei dagokienez, kultur batzordeak bilan bat egin dezan nahi luke, eta Bernadette Jougleux andeari galdegin dio gertakari garrantzitsu horien bilana aurkez dezan.

- Hiriart-Urruty andereak oroitarazi du Etxepare lizeoak diru-laguntza galde bat igorri diola herriko etxeari, altzariak, materiala eta abar erosten laguntzeko sagarrondo salmentari buruz. Jakin nahi luke zer segida eman zaion galde horri.

Auzapez jaunak ihardetsi dio Errobiko elkargo kontseiluan biek izan zuten elkarrizketaren ondorioz, galdea taldeari aipatu ziola, eta taldeak erabaki zuela baiezkoren ematea. Beraz,

herriak hogeita bederatzi sagarrondo erosiko ditu: kontseilari bakoitzarentzat bat. Herriak du erosketa hori beregain hartuko. Bernadette Jougleux andereak begiratu behar du sagarrondo horiek non ezarriko diren Kanbon, eta bere ustez, jada pentsatua du sagardi hori non kokatu.

Jougleux andereak gehitu du sagarrondoak ez direla aurtan landatuko, ez baitituzte gehiago. 2017ko udazkenean landatzeko eskaera egin da.

- Bacardatz jaunak jakin nahi luke, komunikazio batzorderik ez dagoenez, zertan den herri aldizkaria.

Auzapez jaunak erantzun dio oposizioaren ekarpen “zinez ohargarria” ikusi duela, eta hitza arduradunari utzi dio.

Lassus jaunak adierazi du, momentuz, komunikazio batzordeak finkatu epeak ez direla pasatu. Ekarpeneke usaian baino beranta gutiago dute; ahal den guzia egina izanen da azken epea, bereziki banaketa, abendu hondarra aitzin bete dadin.

Bacardatz jaunak zehaztu du azken batzordearen banaketa-epea abendu erdiko zela.

Lassus jaunak erantzun dio banaketa 2016ko abenduaren 19tik 25erako asterako pentsatua dela. Beraz, gauzak zehatz errateko, abendu erdia baino berantago da. Gehitu du zaila izanen dela, baina ahalegin guziak egingen direla.

Bacardatz jaunak galdegin du artikulua batzuk eskas direla erran nahi duenez.

Auzapez jaunak baieztatu dio hala dela.

Lassus jaunak gehitu du itzulpen batzuk eta Auzapez jaunaren editoriala eskas direla, jakinez editoriala ez dela idazten luzeena, Auzapeza idazle trebea baita. Momentuz, itzulpenen beha dago. Ez daki Herri Elkargoak nola jokatzeko duen: bere ustez, batzuetan itzulpen batzuk azpikontratatzeko ditu, langileek libre duten denboraren arabera. Zehaztu du itzulpen zerbitzua aste batez hetsia izan dela, formakuntza batengatik, eta ez zuela horren berri izan. Beraz, baliteke horrek beranta pixka bat sortzea.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluaren bilkura bururatu du, 23:00etan.